

Ohikoak dituen **zuhurtzia goreneko** irizpideen haritik, **385,3 milioi** euro bideratu ditu saneamenduetara

Kutxabankek 231 milioi euro lortu ditu hirugarren hiruhilekoan, %21,3 gehiago

- **Interes tipoen testuingurua kontrakoa izan arren, marjina nagusiek bilakaera ona izan dute eta urtea ezarritako helburuak beteta amaitzea espero da**
- **Mailegu hipotekario berrien kontratazioak merkatuko batez bestekoa gainditu du, %18 hazi baita. Kontsumorako maileguak %25 igo dira eta %52 Merkataritza Maileguak**
- **Berankortasun maila %5,46koa da, duela urtebete baino oinarriko 170 puntu txikiagoa, eta erabateko kaudimena %15,3an kokatu da**
- **Kutxabanken sendotasuna nazioarteko rating agentzia nagusiek aintzatetsi dute, eta sistema osoan balorazio onenetakoa duen erakundea da**

2017ko urriaren 26an. Kutxabank Taldeak **230,8 milioi euroko irabazi garbi trinkoarekin** amaitu du hirugarren hiruhilekoa, iaz garai berean baino **%21,3 gehiago**. **CajaSur** erakundearen ekarpen positiboa **16,8 milioi** eurokoa izan da.

Ekonomiaren baldintzetan hobekuntza zantzu nabariak ikusi arren, erreferentziazko interes tipoen testuinguru zaila, iraileko Euriborra **%-0,168ko gutxiengo historikoan** dela, negozioarentzat eragile negatibo erabakiorra izan da. Horregatik da bereziki deigarria Kutxabanken banka-jardueraren euskarri diren **marjina nagusiek izan duten bilakaera positiboa**.

Urte osoan zehar gertatu den bezala, negozioaren hazkunderan oso garrantzitsua izan da finantza-produktu berrien kontratazio-maila garaia, batik bat **hipoteka eta kontsumorako maileguena, bai eta enpresen finantziarioarena** ere. Halaber, aipagarriak dira **aseguruen negozioak** izan duen ekarpen errepikaria, eta **bezeroen baliabideen bilakaera positiboa**, inbertsio fondoak eta ageriko aurrezkiak buru direla.

Zorro industrialaren berregituraketak eraginda, **Finantza Operazioen Emaitzengatiko** sarrerak **247,5 milioi eurokoak** izan dira, baina osorik aparteko saneamenduetara era zuzkiduretara bideratu dira.

Partaidetuen berregituratzea eta honen ondorio den **kapital egoeraren hobekuntza, nazioarteko hiru agentzia nagusiek** aintzat izan duten baldintzetako bat izan da

Kutxabanki buruz egin dituzten balorazioak hobetzeko, arrisku maila sendoaz eta likidotasun egoera indartsuaz gain. Agentziok azken hilabeteetan rating hobekuntzak plazaratu dituzte, eta horien ondorioz euskal finantza Taldea **espainiar banka-sistemako goiko postuetan** kokatu da.

Interesen Marjina bere onera dator, inguru zailean

Interesen Marjinean nabari den etengabeko hobekuntza baieztatu egin da 2017ko hirugarren hiruhilekoaren amaieran ere. Adierazle honen ezaugarri deigarrienetako bat izan da duela urtebete zuen hiruhilekoko saldoa hobetzea lortu duela, %5 hobetu ere. Honela, urteko lehen bederatzi hilabeteetan **416,1 milioi eurora** iritsi da. Finantza Taldearen sarrera finantzarioak ia osorik ohiko banka-negoziotik datoz, zor publikoko tresnen zorroa oso murrizta baita gainerako erakundeekin alderatuta.

Zerbitzuen edo komisioen hazkundetik eratorritako sarreretan erabakiorra izan da inbertsio fondoan eta pentsio planen bilakaera positiboa, erakartzerakoan zein balorazioetan, bai eta ordainketa bitartekoetan sumatu den jarduera biziagoa ere. Atal hau **280,7 milioi eurora** iritsi da irailaren amaieran, iaz garai berean baino **%9 gehiago**.

Honela, **Oinarriko Marjinaren** saldoa (interesak eta komisioak) **696,8 milioi** eurotan kokatu da, **%2,8 gehiago**, hobekuntza eta joera aldaketa agerian utzita, aurreko bi hilabeteetan gertatu zen bezala.

Urte osoan zehar jazo den bezala, enpresetako partaidetzen berregituraketak murrizketa ekarri du **dibidenduetan eta parekidetasuneko sarreretan**, iaz baino **%55,2** txikiagoa izan baita, **43,4 milioi eurokoa** zehazki. **Finantza Eragiketen Emaitzak 247,5 milioi** eurokoak izan dira, eta beraz **Partaidetuen emaitzak** 290,9 milioi eurokoak, iz baino %94,1 handiagoak.

Aseguruen jarduera errepikaria **%10,9** hazi da, eta 72,3 milioi eurotan kokatu da.

Horrekin guztiarekin, Marjina Gordina %19,4 aurreratu da, eta **1.058,4 milioi** eurotan kokatu da.

Gastuari eusteko eta Bankuaren eraginkortasuna hobetzeko politiken ondorioz, Administrazio Gastuak %3,2 murriztu dira iazkoaren aldean. **Pertsonal gastuak** %4,3 txikitu dira eta %0,8 **gastu orokorrak**. Jeitsiera hauekin, **Ustiapen Marjina 548,5 milioi eurokoa** izan da.

Kutxabank Taldeak hirugarren hiruhilekoan zehar ohikoa duen zuhurtzia goreneko irizpideari eutsi dio **zuzkidurak eta saneamenduak** egiterakoan. Atal honetara **385,3 milioi euro** zuzendu dira, iazko zenbatekoa bikoiztuta.

Kutxabank Taldearen emaitzak, 2017ko hirugarren hiruhilekoa

Milioi euro	2017ko iraila	% Δ
Interesen marjina	416,1	-1,0
Komisioak	280,7	9,0
Oinarriko Marjina	696,8	2,8
Partaidetuen emaitza	290,9	94,1
Beste Ustiapen emaitzak	70,8	20,6
Marjina Gordina	1.058,4	19,4
Administrazio Gastuak	-471,7	-3,2
Amortizazioak	-38,3	-2,5
Ustiapen Marjina	548,5	52,4
Saneamenduak eta narriadurak	-385,3	100,9
Beste irabazi eta galerak	55,4	58,0
Zergak eta besteak	12,2	n.s.
Taldearen emaitza	230,8	21,3

Negozio-bolumena % 2,9 hazi da

Negozio-sareek **kudeatutako baliabideek % 5,7** egin dute aurrera, **56.983 milioi eurora** iritsi arte, **%4,7ko** bilakaera izan dute **xehekako sarean** eta **% 18,8koa handizkako sarean**. Hazkunde horri bai bezeroen baliabideak erakartzean, bai baliabide horien balorazioan izan den bilakaera positiboak lagundu dio.

Produktuz produktu, **ageriko aurrezkiaren saldoek % 16,4** egin dute gora, **% 8,9 inbertsio fondoetakoek** eta **% 3,9 pentsio-planen saldoek**. Finantza-taldeak bere bezeroen ondarearen kudeaketan balio erantsi handiko produktuen merkaturatzea sustatu du epealdi horretan, esaterako **delegatutako zorroak**, % 27 hazi baitira. Iraileko itxieraraino **aurreikuspen produktuen** (pentsio-fondoak eta BGAEak) bilakaera positiboa ere nabarmendu da. Ondorioz, Kutxabankek arlo horretan duen lidergoari eutsi dio. batez ere bere jatorrizko lurraldeetan.

Hazkunde erritmo gogorra finantzaketan

Finantzaketa berriak azken hilabeteetako goranzko joerari eutsi dio eta **Kreditu Inbertsioak**, zalantzazko aktiboak kenduta, 2016ko irailaren aldean % 0,9 egin dezala

gora ahalbidetu du. Hori guztia **enpresei eta erakundeei** zerbitzua ematen dieten sareen negozioan portaera onak bultzatuta, % **1,2** egin baitu aurrera.

Bankuaren bezero diren enpresek **aktibo finkoan eskatu duten inbertsioetarako finantzaketa berriak**, korporazio handiak kenduta, azken hiruhilekoetako goranzko kurbari eutsi dio eta mailegu berrien formalizazioa % **42,4** hazi da, iazkoaren aldean. **Zirkulatzailerako finantzaketari** dagokionez, enpresen salmentei zuzenean lotua, % **28,6** egin du gora.

Hipoteka-merkatuari dagokionez, udaldia trantsizio garaia eta jarduera eskasagokoa izaten bada ere, Kutxabankek % **18ko** aurrerapen positiboa lortu du irailaren amaiera arte sinatutako **hipoteka-maileguetan** eta 1.559,2 milioi eurora iritsi da. Datu horiek Espainiako merkatuan oro har duen **merkatu-kuota** hobetzen jarraitzea ahalbidetu diote eta, bereziki, bere jatorrizko lurraldeetan duena. Egun, Euskadin sinatutako hipoteka-maileguen % **38** Kutxabank finantza-taldearenak dira.

Egoera ekonomikoa nahiz kontsumitzaileen konfiantza mailaz maila doaz gorantz, eta hori, kontsumora bideratutako finantza-produktuek, batez ere mailegu pertsonalek eta 'Merkataritza Maileguak', izan duten gorakadan ere ikusi da. **Mailegu pertsonalen** ekoizpen berriak **264 milioi euroraino** egin du gora, iazko epealdi berean baino % 25 gehiago.

Kutxabanken bezero diren saltokietan sumatu den jarduera handiagoa eta salmenten hazkundera '**Saltegi Kredituak**' egin duen aurrerapen ikusgarrian islatzen dira, saltokietan bertan eman den finantzaketa, **28 milioi eurotik** gorakoa, % **52 handiagoa** izan baita. Gainera, Euskadiko Finantza-Taldeak merkaturatu dituen ordainketak atzeratzeko erraztasun berriek (Flexibuy) kreditu-txarteletan erabilitako saldoak, azken hamabi hilabeteetan, % **11,4** haz daitezela ahalbidetzen dute.

Hartara, **Negozio-bolumena** 102.287 milioi eurotik gorakoa da, 2016ko irailean baino % **2,9** handiagoa.

Aseguru berriak finkatzen ari dira

Aseguruek Taldeari urteko lehen bederatzi hilabeteetan egin dioten ekarpena **72,3 milioi** eurokoa izan da, hau da, % **10,9ko** igoera izan dute.

Loturadun produktuek izan duten bilakaera onarekin batera, aseguruaren zorro egonkorrari dagozkion primen % **3,5eko** hazkundera, baita ekoizpen berriaren dinamismoa ere, izan dira alderdi giltzarrietako zenbait, **100.000 poliza berri** sinatu baitira urteko lehen bederatzi hilabeteetan.

Gainera, ekitaldian zehar merkaturatutako aseguru berriek berehala finkatzea lortu dute, bereziki, autonomoentzako osasun-aseguruek eta heriotza-aseguruek, azken mota horrek 2 milioi eurotik gora **prima berri** lortu baititu 3 hilabete baino gutxiagotan.

Tresna digital berriak

Azken hilabeteak bereziki biziak izan dira Kutxabankerako **zerbitzu digital berrien** aktibazioan, eskuko telefonoa tresna nagusi dela.

Bezeroen erabilera berriei eta eskakizunei egokitzeko bere apustu estrategikoari jarraiki, **eskuko telefonoaren bidezko sinadura digitaleko** zerbitzu berria abiarazi du Bankuak. Zerbitzu horren ezaugarri nagusia kontratuak eta dokumentuak *smartphonetik* bertatik sinatu daitezkeela da.

Helbideratu gabe dauden erreziboak eskukotik bertatik ordaintzeko zerbitzu berria ere aktibatu du. Banku-kontuan helbideratu ez diren erreziboak erraz eta zailtasunik gabe ordaintzea ahalbidetzen du zerbitzu horrek, bulegora joan behar barik. Gauzak horrela, uztailetik aurrera, Kutxabanken Banka mugikorrek nahiz Online bankak **erreziboen kudeaketa integrala eskuko telefonotik**, tabletetik edo ordenagailu pertsonaletik egiteko aukera eskaintzen diete euren bezeroei; izan ere, gailu horietatik erreziboak ordaindu, itzuli, helbideratu, ezeztatu edo kontsultatu daitezke.

Zerbitzu horrek bere egin dituen aurrerapenen artean, kontuetan egindako mugimenduei buruz ematen duen informazio zehatzagoa nabarmentzen da, igorlearen identitatetik hasita erreziboaren kontzepturaino. Gainera, lehenagotik eginda zeuden ordainketen kontsulta eta bilaketa errazten duen **bilatzaile berria** ere badu. Bilaketa horiek data, igorlearen identitatea, zenbatekoa edo kontzeptu zehatzaren arabera egin daitezke.

Oraintsu, Bankuak **hatz-markaren bidezko identifikazioa** gaitu du eskukoaren aplikazioan sartzeko. Gaur egun, Kutxabank Taldearen bezeroen **% 33 baino gehiago erabilizaile digitalak** dira, hau da, lehenasunez eta ia-ia eskusiboki online egiten dituzte banku-eragiketak. Ehuneko horrek lau puntu egin du gora urtebetean.

Berankortasun-tasa hobetu egin da berriz ere

Kutxabanken **berankortasun-tasa % 5,46an** kokatu da, 2016ko irailean baino 170 oinarrizko puntu gutxiago, eta sektorearen batez bestekoaren hiru puntutara, irailaren amaieran % 8,48an kokatu baitzen sektorearena. Hobekuntza horri zalantzazko aktiboen

bolumenaren jaitzierak ere lagundu dio, **568 milioi euro** jaitsi baitira aktibo horiek ekitaldiaren hasierako lehen bederatzi hilabeteetan.

Sustapen-arriskuari lotuta dagoena izan ezik, Taldearen berandutza **% 4,1ean** finkatuta geratu da. **Etxebizitza hipotekaren berandutza % 3,3an** kokatu da.

Kutxabank Taldearen **kaudimena** Espainiako finantza-sektoreko altuenen artean finkatu da; **% 15,3ko CET1 kaudimen-ratioa** du (kalitate goreneko kaudimena), ondarearen bilakaera eta hiruhileko irabaziak kontuan izan ostean.

Hartara, kaudimen, berandutza, errentagarritasun eta eraginkortasun adierazle nagusien garapena erakundeak finkatutako helburuekin bat dator. **ROE** koefizientea, norberaren baliabideen gaineko errentagarritasuna neurtzen duena, **% 5,78an** kokatu da, 2016ko abendutik oinarriko 72 puntu hobetu ostean, eta ROTE indizea % 6,18koa da.